

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A



Londresko Browns hotelaren ataria. Besteak beste, A.G. Bell-ek bertatik egin zuen Europako lehen telefono deia eta Kipling-ek ere han idatzi zuen *Oihaneko liburua*.

Hotelek hitz egingo balute

LONDRES, 1837. Ingalaterrako hiriburuko lehen hotela zabaldu zuen James Brown-ek, Lord Byron-en etxezain ohiak.

1876an Alexander Graham Bell Londresera joan zen asmatu berri zuen telefona Britainia Handiko gobernuari aurkeztera, eta Browns hotelean hartu zuen ostatu. Asmakizunaren erakustaldia hoteleko gelan bertan egin zuen eta, hortaz, Europako lehen dei telefonikoa James Brownen hoteletik egin zen.

Handik urte batzuetara, 1894an, Rudyard Kipling-ek ere hotel hura aukeratu zuen *Oihaneko liburua* idazteko. Hoteleko giroa sormenerako aproposa zen, nonbait, eta 1965ean Agatha Christie *Bertram Hotelean* nobela bertan kokatzea erabaki zuen.

Handik milaka kilometrora, Keniako Aberdare Natura Parkean, hotel bitxia eraiki zuten 1932an. Treetops hotela zuhaitz handi baten gainean eraiki zuten eta hortxe dago gaur egun ere. 1952an Ingalaterrako Elisabet printzesa hotel horretan zegoen haren aita Jorge VI.a erregea hil zenean. Beraz, hantxe bota zuten “*the King is dead, God save the Queen*” esaldi ezaguna, eta ordutik Ingalaterrako erregina da.

XX. mendean hainbat hotelek bestelako zerbitzuak eskaini behar izan zituzten, gerra garaian bereziki. 130 urtetik gora dituen San Petersburgoko Grand Hotel Europe, ospitale, umezurztegi eta administrazio-gune izan zen Errusiar Iraultzan eta I. Mundu Gerran. II. Mundu Gerran alemaniarrek arpilatu zuten, baina egun atek zabalik dauzka oraindik.

Berlingo Adlon hotela (1907an irekia) Nazioarteko Olinpiar Batzordeko egoitza izan zen 1936ko Olinpiar Jokotan, eta handik gutxira hasitako gerran bilera diplomatiko ugariaren lekuko izan zen. Baina Marlene Dietrich-en karrera bertan hasi zelako da ezaguna batez ere.

Hala, bertan gertatutakoek historiko bilakatu dituzte hainbat hotel. Baina azken urteotan bestelako eraikin historikoak hotel bihurtzeko joera zabaldu da, gaztelu edo jauregi zaharrak bereziki. Badira bestelako eraikinak ere. Gurean, esaterako, Lizarrako Tximista hotela XIX. mendeko Zaldu irin-fabrika zaharberritua da. Eta badirudi Alcatraz espetxe ezaguna hotel bilakatuko dela aurki; orain arte inork egon nahi ez zuen tokian lo egiteko, askok dirua ordainduko dutela, alegia.

Arrastoak

Ondarea, dagokion tokira

PARTENOIKO estatua baten burua Greziara itzuli da berriki, Vaticanoko Museo Gregoriar Etruriarrean luzaroan egon ondoren. Berri pozgarria da, baina bakana. Izan ere, balantzaren alde honetan estatua horren burua jarrita nekez lortuko da beste aldeko bidegabeberria guztiak berdintzea.

Machu Picchuko ondarea horren adibide garbia da. Aurkitu eta berehala arpilatu zuten Peruko aztarnategia; ondarearen zatirik handiena AEBetara eraman zuten. Urteak dira Peruko Gobernuak ondarea dagokion lekura itzultzeko borrokan ari dela. 2007an bazirudien ahalegin horrek emaitzak emango zituela, Yale-ko Unibertsitateak (AEB) lau haizetara zabaldu baitzuen bere esku dauden Machu Picchuko 46.332 piezak itzuliko zituela. Baina bi urtean ez da pieza bakarra ere mugitu eta Peruko gobernuak Yaleren aurkako demanda aurkeztea erabaki du.



Machu Picchun aurkitutako zeramika hau Yale-ko Unibertsitatean dauden ia 50.000 piezetako bat da.